

GAU BELTZA. Beldurrak Piztu, Iluntasuna Bizi!

Kalabazak hustu, kandelak piztu... Gau Beltza urriaren 31ren bueltan ospatzen da Euskal Herrian. Ohitura zaharrak berreskuratuz, jai berrasmutzen ari dira herriz herri. Eta zuek, zer ospatzen duzue?

Egunerokoarekin hautsi eta bestelako bizipenak izateko aukera eskaintzen digute jaiak. Elkarrekin ospatuta, gainera, kohesio soziala indartzeko tresna baliotsua dira, komunitatea sortzekoa. Jaiak euskaratik eta euskaraz antolatu eta bizitzearen garrantziaz jabetuta, berreskurtzeko bidea abiatu duen jai baten zabalpenean akuilu izan nahi du Euskaltzaleen Topaguneak: Gau Beltza edo Arimen Gauda bezala ezagun egiten ari den jai hain zuzen.

Gau Beltza: Testuingurua

Udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan, erritu ezberdinak egin izan dira Europa osoan. Baita Euskal Herrian ere.

Urtearen heriotza, uzta bilketa, hildako senideen oroimena... barrura begirako ariketan jartzen gaitu urtaro honek. Aldi berean, iluntasunak eta heriotzaren gaiak elkar beldurtzeko jolasean aritzeko parada eman ohi digu.

Gurean ere badira kontakizunak, kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argizatuta jartzen zirenekoak; bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimek bidea erakusteko jarriak.

Erritual ugari mantendu dituen herria da gurea. Baina beste asko urteetan zehar galtzen joan dira, egiten zirenaren ezagutza ere ia galtzeraino. Horietako batzuk berreskuratu eta berriak sortzeko ahaleginean, herriz herri hasiak dira berriz ere udazkeneko egun ilunetako jaiak antolatzen: kalabazak hustu, trapu zaharrekin aurpegia estali, beldurra eragin..



Gauda, beldurra, gozokiak, gaudaz lagunekin ateratzea, mozorroak... Gazteenentzat erakargarritasun handia duten elementuak bateratzen dituzte jai hauek.

lkerketak erakusten duen bezala, Gau Beltza bertako ikuspegitik antolatzen hasiak dira jada herri batzuetan (Mutriku, Eibar, Txantrea, Aretxabaleta, Lekeitio, Oiartzun, Baliarrain, Pasaia, Arrasate...) eta



datozen urteetan berriak sortuko direla aurreikus dezakegu. Ospakizun hauek ikuspegi komunitariotik antolatu ohi dira, aurrekontu txikiekin eta eredu jasangarriak bultzatuz (kalabaza naturalak, garaiko gaztaina erreak, trapu zaharrak mozerro gisan...).

Bizipenak aldatu egin dira eta, honekin batera, jaiak eta tradizioak. Hauek iraungo badute, gaurkotasunera egokitzen direlako izango da; eta horrela ari da zabaltzen Gau Beltza Euskal Herrian. Berreskurapena baino, ospakizunaren berrinterpretazioa



edo birsortzea ari da izaten: antzinakoak kontuan hartuta, guretik nahi dugu Gau Beltza ospatu, gaur egungo ikuspegitik ematen dizkigun aukerak eta erakargarritasuna baliatuta.